

MUSIKA

Musikak paper garrantzitsua izan du —antzinatik datorrena eta gaur egun ere mantentzen dena— beste arte eta kultura batzuekin duen loturan. Horregatik, haren funtzioak ezagutzeak, hainbat espresio artistikorekin —hala nola dantzarekin, antzerkiarekin eta literaturarekin— konbinatuz komunikatzeak eta adierazteak ikasleen adierazpen- eta komunikazio-gaitasunak indartuko ditu. Gainera, teknologia berrien presentziak erabat aldatu du soinuak sortzeko, erregistratzeko eta transmititzeko modua, horiek manipulatzeke aukerak areagotuz, baita horiek entzuteko eta kontsumitzeko modua ere. Sormen-prozesua tresna digitalekin eta teknologiarekin lotzea beharrezkoa da egungo gizartearen abiadurak eta konple-

xutasunak bultzatutako mundu globalean txertatze ekosoziala errazteko etorkizunean. Horregatik, ezinbestekoa da ikasleek musika produzitzeko eta tratatzeko baliabideen ezagutzatik abiatuta azterketa kritikoa egiteko prestakuntza jasotzea.

Musikak curriculumeko funtsezko konpetentziak garatzen eta ikasleen irteera-profila lortzen laguntzen du oinarrizko hezkuntzan. Era berean, aktiboki esku hartzen du haien garapen kognitiboan, emozionalan, psikomotorrean eta sozialean. Alderdi kognitiboan, musikak arreta, pertzepzioa, abstrakzioa, gogoeta, memoria, analisia, musika-hizkuntzaren berezko elementuak eta produkzio musikalen testuingurua garatzen ditu, sorkuntza eta entzute aktiboaren bidez. Alderdi psikomotorra ahozko praktikaren, praktika instrumentalaren, psikomotorren, mugimenduaren eta dantzaren bidez lantzen da. Osagai emozionala sentsibilitate emozionala, autoezagutza, autoestimua, enpatia eta kultura- eta genero-aniztasunarekiko errespetua garatzeko prozesuaren berezko zatia da. Garapen sozialari dagokionez, musikak topagune bat eskaintzen du, eta horren inguruan ikasleek jarduera kooperatiboetan parte hartzen dute. Jarduera horiek taldearen koordinazioa, komunikazioa eta gizarte-kohesioa dakarte. Musika jakintzagaiak, Nazio Batuen Garapen Jasangarrirako 2030 Agendaren postulatuarekin bat etorriz, bizimodu jasangarriak, giza eskubideak, emakumeen eta gizonen berdintasuna, etengabeko ikaskuntza, bakearen eta indarkeriarik ezaren kulturaren sustapena, munduko herritartasuna eta kultura-aniztasunaren balorazioa sustatzen ditu.

“Musika” arloa “Hezkuntza plastikoa, ikusizkoa eta ikus-entzunezkoarekin” eta “Adierazpen Artistikoarekin” lotzea, a priori, zuzenagoa da, arte-arloko bi konpetentzia direlako. Hala ere, begi-bistakoak dira curriculumeko gainerako jakintzagaiekiko loturak, hala nola erlazio erritmiko eta estrukturalen azpian dagoen erlazio matematikoa; soinuaren ezaugarri fisikoak; hizkuntzaren eta musikaren arteko erlazioa; testuaren eta hizkuntzaren eta melodien arteko sinbiosia; historia ezagutzeko beharra, adierazpen musikalen zergatia ulertzeko; teknologia digitalen erabilera harrerarako eta sorkuntzarako; espiritu ekintzailea garatzea proiektuen plangintzan eta kudeaketan; gorputzaren aukerak eta horiek gorputz-adierazpenarekin duten harremana ezagutzea, eta abar.

Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako Musika jakintzagaia Lehen Hezkuntzako Musika Hezkuntzaren arloaren konpetentzia-profiletik eraikitzen da. Musikako curriculumak bost konpetentzia espezifiko garatzen ditu, honako osagai hauetatik abiatuta: Kultura Nortasuna, Kultura Harrera, Autoadierazpena eta Produkzio Artistikoa/Kulturala, euren arteko erlazioan eta jakintzagaiaren bizipen-izaeran oinarrituta; batzuk ezin dira ulertu besteak gabe. Konpetentzia espezifikoaren eskuratzeko-maila ebaluazio-irizpideen bidez zehazten da.

Curriculumak bi zatitan egituratzen da: lehenengoan DBHko 1. mailatik 3.era bitartekoak sartzen dira, eta bigarrenetan DBHko 4. mailarako dago berariaz garatuta. Horietako bakoitzerako oinarrizko jakintza batzuk diseinatu dira, hiru multzotan egituratuta, eta prozedurazko lan baten bidez lortu nahi diren ezagutzak, trebetasunak eta jarrerak barne hartzen dituzte, ezagutza teorikoak musika-hizkuntzara ohitu eta bertan murgildu ondoren barnera daitezen.

- *Musika entzutea eta hautematea*: nortasun kulturalaren kontzeptua garatzen du. Ikus-entzunezko hainbat proposamen azalduz, artearen aukerak hurbiltzea, inspiratzea eta ezagutzea errazten da, sentimenduak eta emozioak adierazteko bitarteko gisa.
- *Interpretazioa, inprobisazioa eta sorkuntza eszenikoa*: musika-hizkuntzaren funtsezko kontzeptuak ikastea bilatzen du. Talde-proiektuetan oinarritutako lanari esker, tolerantzia, kolaborazioa eta errespetua bezalako jarreraren garrantzia ezagutu ahal izango dute. Era berean, euren sozializazio-prozesua, edozein tresna teknikoki menderatzeko eta edozein erronka betetzeko behar duten jarraitutasunaren balorazioa, eta espiritu ekintzailearekin lotutako trebetasunen sustapena erraztuko du.
- DBHko 1. mailatik 3.era bitarteko *Musika-testuinguruak eta -kulturak*, eta DBHko 4. mailan *Musika-testuinguruak eta -kulturak, komunikabideak eta teknologiak*: musika-genero eta -estilo adierazgarrienera hurbiltzea da asmoa, historian zehar adierazpen musikalki desberdinak modu global eta ordenatuan hurbiltzea eta arteak adierazpen gisa duen garrantziaren ikuspegia eskaintzea ahalbidetzeko.

Azkenik, ikasleen analitika- eta adierazpen-gaitasuna eta euren sormena, irudimena eta sentsibiltatea garatzeko, oinarritzko jakintzak integratuko dituzten ikas-egoerak diseinatuko dira. Ikasleak beren ikas-kuntzaren protagonista izango dira esperientzia, prozesu, proiektu, erronka eta zeregin analogiko eta digitalen bidez, eta horrek elkartasuna, aniztasunarekiko errespetua eta gizartea hobetzeko konpromisoa bezalako balioak indartuko ditu.

KONPETENTZIA ESPEZIFIKOAK

1. Produkzio musikal eta eszenikoek gizakiaren eta haren kulturaren garapenean izan duten funtzioa ezagutzea, haren eboluzioari buruzko hartze aktiboaren eta hausnarketa kritikoaren bidez, gizabana-ko bakoitzaren eta gizarte osoaren balioen eta sinesmenen testigantzan nola bihurtzen diren ulertze-ko, haiek kontserbatzeak duen garrantzia baloratu.

Musikaren eta arte eszenikoen eboluzioa garai eta gizarte desberdinetako adierazpen gisa ezagutzea aldaketarako isla eta eragile diren transformazio sozialetan duten garrantzia baloratzen ikastea da. Adierazpen artistiko desberdinen konbinazioak kultura-ondare bat sortu du, eta hori ezagutzea garrantzitsua da aniztasunaren eta kulturartekotasunaren gainean finkatzen den nortasun propioa eraikitze-ko.

Arte-adierazpenen testuinguruaren bidez, adierazpen horiek behar bezala baloratu eta beren garaiko eta testuinguru sozialeko produktutzat har daitezke, eta, aldi berean, haien eboluzioari eta orainarekin duten harremanari buruzko hausnarketa egin daiteke. Adierazpen sortzaile horiek estimatuz eta balioetsiz, kultura-ondarea babesten, arte-adierazpenak errespetatzen eta zentzu kritikoa garatzen laguntzen da.

Produkzio musikal eta eszenikoen ikusle aktibo gisa parte hartzeak aukera ematen du ikasleek harremanetan jartzeko erabiltzen dituzten kultura-adierazpenen aniztasuna areagotzeko, eta, horretarako, askotariko adierazpideen jakin-mina, errespetua eta asimilazioa sustatzen ditu.

Konpetentzia espezifikoa hau irteera-profilaren deskriptore hauekin lotzen da: HKK1, HKK2, KE3, DK1, KPSII1, HK1, EK1, KAKK1 eta KAKK2.

2. Hainbat musika- eta eszena-adierazpenen ezaugarri garrantzitsuenak ezagutzea, gizartearen barruan dituzten elementuak eta asmoak aztertuz, norberaren pentsamendua eta kultura-identitatea garatzeko, eta interesa agertuz eta ondarearen garrantzia baloratu, kultura aberasteko eta errespeturako iturri gisa.

Musika bere kodeak eta elementuen uztarketa ezagutzea eskatzen duen hizkuntza da, musika bera ulertu ahal izateko. Entzute aktiboaren, partituraren, testu idatziaren edo ikus-entzunezko beste baliabide analogiko eta digital batzuen bidezko ohikuntzatik abiatuta, ikasleak musika-proposamenen ezaugarri garrantzitsuenak ezagutzeko gai izango dira.

Hainbat proposamen kulturalen analisiak musika gela ikasleak aniztasunean oinarritutako irizpide estetikoak osatzeko gaitzen dituzten tresnak eskuratzeko gune bihurtzen du. Horiek aztertzeak euren ezaugarri esanguratsuenak identifikatzeko bidea erraztuko du, eta horiek sortu ziren esparru historiko eta sozialaren barruan kokatzea bultzatuko du. Era berean, musika- eta genero-barietate desberdinak aintzat hartzen laguntzen du; izan ere, gaurkotasunekoak edo ohiko kontsumokoak ez direnez, musika-merkatuetatik kanpo geratzen dira. Horrek esan nahi du zentzu kritikoa garatu behar dela hainbat masa-komunikabidetan edo Internet bidez kultura- eta arte-eskaintza hautatzeko edo eskuratzeko orduan. Eta horri esker, ikasleek pentsamendu kritikoa garatu ahal izango dute, eta adierazpen artistiko desberdinekiko errespetu handiagoa izango dute.

Konpetentzia espezifikoa hau irteera-profilaren deskriptore hauekin lotzen da: HKK1, HKK2, KE3, KD2, KPSII1, HK1, HK2, KAKK1, KAKK2.

3. Emozioen eta adierazpen musikaren arteko erlazioa aztertzea, norberaren eta besteen iritzien bidez eta ahots-, instrumentu- eta gorputz-inprobisazioen bidez, sormena eta jarrera kolaboratiboa garatzeko.

Musika-lan paradigmatico handien zentzuari buruzko hausnarketak aukera ematen du haietara elkarrizketan oinarritutako hurbilketa bat egiteko, non horiek sorrarazten dituzten emozio primario individualen adierazpena gai sozial eta etikoekin lotu daitekeen. Era berean, ikasleak aberasten dituzten balioekin (elkartasuna, tolerantzia eta errespetua) duen harremana errazten du.

Adierazpen musikaren talde-lanak iritzi-aniztasunarekiko errespetua, berdinen arteko aberastasun kulturala eta oztopo eta estereotipo sozial, kultural edo sexistak gainditzea sustatzen du. Gainera, hitzezko, ez-hitzezko eta idatzizko hizkuntza testuinguru analogiko eta digitaletan erabiltzeak aukera ematen du ideiak eta kontzeptu sinbolikoak adierazteko, ikasleen komunikazio-gaitasuna garatuz.

Bestalde, sentimenduak musikaren eta dantzaren bidez adieraz daitezke, haien elementuak libreki erabiliz eta soinuaren esperimentazio eta esperimentazio psikomotrizia sustatuz, sormenaren eta adierazpen artistikoaren iturri gisa. Pieza txikiak bakarka edo taldeka inprobisatzea, multzoak aurrez definitutako eta adostutako eskemak erabiliz, aberasteko eta ikasteko iturri da.

Konpetentzia espezifiko hau irteera-profilaren deskriptore hauekin lotzen da: HKK1, KE1, KD2, KD3, KPSII1, HK2, EK1, EK3, KAKK2 eta KAKK3.

4. Musika-, ahots-, instrumentu-, mugimendu- eta dantza-interpretazioaren berezko ezagutza musikalak, trebetasunak eta teknikak aplikatzea, proposamen musikalak eta eszenikoak gauzatuz, sormen- eta adierazpen-aukerak aztertzeke, euren sentimenduak, emozioak eta jarrerak kontrolatzeko eta kudeatzeko, eta autoestimua garatzeko.

Musika-proposamenak eta mugimenduarekin eta dantzarekin lotutako beste batzuk interpretatzea arte-ondarea ezagutzeko iturri bat da, eta, aldi berean, ikasleek musika edo dantza erabil dezakete hitz gabeko hizkuntza baten bidez emozioak adierazteko eta bideratzeko.

Ahotsa, musika-instrumentuak eta gorputza erabiltzea dagoeneko konposatuta dauden obren erreprodukzioan aktiboki parte hartzea ahalbidetzen duten tresnak dira, eta ondare artistiko immateriala babesten, kultura zabaltzen eta baloratzen laguntzen dute.

Musika-hizkuntzaren oinarritako elementuak eta mugimenduak koordinatzeko eta musika-praktika egiteko beharrezkoak diren teknikak ezagutzea ezinbestekoa da arte eszenikoetan hasi ahal izateko. Gainera, elementu horiekin gorputzaren eta instrumentuen bidez esperimentatzeak aukera ematen die ikasleei elementu horietara ohitzeko eta horiek adierazpide gisa dituzten aukerak aztertzeke.

Konpetentzia espezifiko hau irteera-profilaren deskriptore hauekin lotzen da: HKK1, KPSII1, KPSII3, HK1, HK2, EK1, KAKK3 eta KAKK4.

5. Proposamen artistiko-musikalak eta eszenikoak sortzea, banaka edo taldeka, ahotsaren, hainbat instrumenturen, gorputzaren eta tresna teknologikoen euskarriaren bidez, sormena indartzeko eta modu inklusiboan garapen pertsonal, sozial eta ekintzailerako aukerak identifikatzeko.

Proposamen artistiko-musikalen diseinuan parte hartzeak berekin dakar talde-lanaren barruan rol desberdinak betetzea, genero-alderapenik gabe, taldearen barruan banakako lanaren errespetua eta balioa sustatuz. Konpetentzia horretan praktikan jartzen da proiektuak formulatzeko eta garatzeko gaitasuna, modu globalean eskuratutako ezagutzak batuz, sorkuntza-prozesu propio batean islatzeko. Baliabide digitalak erabiltzeak erraztu egiten du musika-elementuak eta elementu bisualak uztartzea, eta ikasleek proposamen artistikoak egitea, beren ideiak sormenez adierazteko.

Ahots-piezak, pieza instrumentalak, gorputz-piezak eta pieza digitalak sortzeak musika-hizkuntzaren oinarritako elementuak erabiltzea dakar, hasierako ideien garapenera egokituko den diskurtso kohe-

rente bat sortzeko. Sortze-prozesuan ikasleen aurretiazko ezagutzak batzen dira, eta, aldi berean, sormena aktibatzen da eta ezagutza tekniko eta teorikoen eskaera areagotzen da, emaitzak hobetzen jarraitu ahal izateko.

Konpetentzia espezifiko hau irteera-profilaren deskriptore hauekin lotzen da: HKK1, STEM3, KD3, KPSII3, KPSII4, HK1, EK3, KKAK3 eta KKAK4.

EBALUAZIO-IRIZPIDEAK

Lehen mailatik hirugarrenera	Laugarren maila
1. konpetentzia espezifikoa	
1.1. Produkzio musikal jakin batzuen inguruko faktore historikoak, kulturalak eta sozialak identifikatzea, horien ezaugarriak eta funtzioa ulertuz adibideen azterketaren bidez, eta genero-ikuspegia eta jarrera kritiko, ireki eta errespetuzkoa txertatuz.	1.1. Produkzio musikal eta eszeniko jakin batzuen inguruko kultura- eta gizarte-faktoreak azaltzea, adibideen azterketa eginez horien ezaugarriak eta funtzioa ulertuz, jarrera irekiaz eta errespetuz, eta azterketa horretan genero-ikuspegia txertatuz.
1.2. Euskal kulturaren eta beste kultura batzuen musika- eta eszena-ondarea kontserbatzearen garrantzia balioestea, proposamen diferentek ezagutuz, eta norberaren aberastea eta gizarte-kohesioa sustatuz.	1.2. Euskal kulturaren eta beste kultura batzuen musika- eta eszena-ondarea kontserbatzeak eta transmititzeak duen garrantzia aitortzea, hainbat proposamen ezagutuz eta horien berezitasunak identifikatuz, horiek gertatzen diren tes-tuinguruarekin duten lotura balioetsiz, eta norbera eta gizarte aberasteko faktore gisa.
2. konpetentzia espezifikoa	
2.1. Gure kulturaren eta beste batzuen musika-proposamenen ezaugarri, elementu eta teknika garrantzitsuenak identifikatzea, ikus-entzunezko euskarrien bidez, irekitasun-, inter-res- eta errespetu-jarrera agerian utziz.	2.1. Hainbat eszena-irudikapen mota aztertzea, haien elementuen eta tekniken bidez, hainbat euskarri erabiliz, testuinguruarekin duten harremana ulertuz eta errespetatuz.
2.2. Euskal kulturaren eta beste kultura batzuen musika- eta eszena-adierazpenak balioestea, analisi eta hartze aktibo, errespetuzko eta inklusiboaren bidez, horiek sortu ziren gizartearen islatzat hartuz.	2.2. Euskal kulturari eta XX. mendeko, zinemako eta gaur egungo beste kultura batzuei dagozkien era guztietako musika- eta eszena-adierazpenak baloratzea, hartze aktiboaren eta errespetuzkoaren bidez, sortu ziren gizartearen islatzat hartuz, ikuspegi inklusibo batetik.
3. konpetentzia espezifikoa	
3.1. Aztertutako musika-proposamenen ideiak, sentimenduak eta emozioak errespetuz, enpatiaz eta sentikortasunez adieraztea, musika-ekitaldiak entzunez, ikusiz edo horietara joanez.	3.1. Aztertutako musika-adibideei buruzko ideiak, sentimenduak eta emozioak errespetuz eta modu kritikoan adieraztea, enpatiaz eta sentikortasunez, musika-ekitaldiak entzunez, ikusiz edo horietara joanez.
3.2. Inprobisazio gidatuak edo askeak egitea, bakarka edo taldean, gorputza edo musika-instrumentuak erabiliz eta sormena eta autokonfiantza garatuz	3.2. Inprobisazioak egitea patroietatik abiatuz edo modu askean, bakarka edo taldean, gorputza edo musika-instrumentuak erabiliz eta sormena eta autokonfiantza garatuz.
3.3. Banakako eta taldeko musika-trebetasunak praktikan jartzea, autoestimua interpretazioaren bidez garatuz eta sendotuz.	3.3. Banakako eta taldeko musika-trebetasunak praktikan jartzea, autoestimua interpretazioaren bidez garatuz.
4. konpetentzia espezifikoa	
4.1. Musika- eta gorputz-interpretazioko oinarriko banakako teknikak erabiltzea musika-trebetasunak garatzeko, eta, horretarako, estereotipatu gabeko emozioen kontrolaren adierazpena eta kudeaketa bultzatuz, baita autokonfiantza eta norberarenganako segurtasuna ere.	4.1. Norberaren trebetasun teknikoak garatzea banakako interpretazio- eta sorkuntza-jardueretan, autoestimua garapena, autokonfiantza eta emozioen kudeaketa sustatuz.
4.2. Interpretatzaile eta entzule gisa parte hartzea ikastetxeko eta/edo ikastetxetik kanpoko emanaldi eta adierazpen musikal eta eszenikoetan, sormen- eta interpretazio-prozesuetan ekimena erakutsiz.	4.2. Interpretatzaile eta entzule gisa parte hartzea ikastetxeko eta ikastetxetik kanpoko emanaldi eta adierazpen musikaletan, sormen- eta interpretazio-prozesuetan ekimena eta lidergoa erakutsiz.

2023ko uztailaren 31, astelehena

Lehen mailatik hirugarrenera	Laugarren maila
4.3. Musika-interpretazioko eta mugimenduko teknikak aplikatzea ikasgelako eta ikasgelatik kanpoko entzunaldi eta kontzertuetan, sormena eta gainerako pertsonetikiko errespetua garatuz.	4.3. Taldeko musika-trebetasunen garapena aztertzea, errespetua, enpatia, jarrera kolaboratzailea erakutsiz eta interpretazioa eta sorkuntza musikala kritikoki baloratuz.
5. konpetentzia espezifikoa	
5.1. Proposamen artistiko-musikalak eta eszenikoak sortzea, ikus-entzunezko produktuak garatzeko tresna teknologikoak erabiliz, jarrera inklusiboarekin, kohesioarekin eta jasangarritasun-irizpideekin.	5.1. Proposamen artistiko-musikalak sortzeko eta zabaltzeko tresna teknologikoak erabiltzea, ikus-entzunezko materialak garatzeko, Netiketa-arauak eta egiletza-eskubideak aplikatuz.
5.2. Ahots, instrumentu, koreografia eta diziplina anitzeko konposizioak egitea bakarka eta/edo elkarlanean, taldearen ideien, emozioen eta sentimenduen aniztasuna errespetatuz.	5.2. Ahots-, instrumentu- eta koreografia-konposizioak sortzea bakarka eta/edo elkarlanean, taldearen ideien, emozioen eta sentimenduen aniztasuna errespetatuz eta jasangarritasun-irizpideei jarraituz.

OINARRIZKO JAKINTZAK

Lehen mailatik hirugarren mailara
A. Musika entzutea eta hautematea.
Soinua, zarata eta isilunea. Kutsadura akustikoa. Ingurumenarekiko errespetuari buruzko hausnarketa kritikoa.*
Musikaren funtsezko elementuak: erritmoa, melodia, harmonia, testura, forma eta musika generoak.*
Euskal Herriko eta beste toki batzuetako sortzaileek egindako musika- eta dantza-proposamenak: historian zehar izan dituzten ezaugarri garrantzitsuenen entzutea, azterketa, deskribapena eta balorazioa.*
Tokiko, eskualdeko, nazioko eta beste toki batzuetako konpositoreak, artistak eta taldeak: zuzeneko eta erregistratutako ekitaldi eta adierazpen artistiko-musikalen eta eszenografikoen azterketa.*
Giza ahotsak eta musika-tresnak. Sailkapena, ezaugarriak eta taldekatzeak.*
Musika-arloari lotutako hiztegi espezifikoa. Ezagutza eta erabilera.
Tresna digitalak eta musika.
Informazio fidagarria, egokia eta kalitatekoa bilatzeko, hautatzeko eta berriz lantzeko estrategiak.
Musika-harrerako oinarrizko portaera-arauak: errespetua eta balorazioa musika argudioetan oinarrituta.
Sentimenduen eta emozioen identifikazioa eta errekonozimendua.*
Sentimenduen eta emozioen adierazpena.*
B. Interpretazioa, inprobisazioa eta sorkuntza eszenikoa.
Partitura: grafia konbentzionalen eta ez-konbentzionalen identifikazioa. Irakurketa eta idazketa musikala.*
Musika-hizkuntzaren oinarrizko elementuak: Soinuaren parametroak, bitartekariak, musika-eskalak eta oinarrizko akordeak.*
Interpretazio eta inprobisazio gidatu eta askerako oinarrizko teknikak: ahozkoa, instrumentala, gorputzekoa eta eszenikoa.
Proiektu musikalak eta ikus-entzunezkoak: musika-hizkuntzaren erabilera eta egokitzea aplikazio teknologikoen bidez.*
Jabetza intelektuala eta kulturala: Lizentzia motak. Planteamendu etikoak eta arduratsuak. Egile eskubideen errespetua eta pribatutasuna.
Musika-sorkuntzarako tresna digitalak.
Musika-jardueretan portaerako eta parte hartzeko arauak. Besteen produkzioekiko errespetuzko eta diskriminaziorik gabeko jarrera.*
Oinarrizko emozioen autorregulazioa. Autoezagutza eta segurtasuna norberarengan.*
Jakin-mina, sormena eta ekimena arte-proposamenak egitean.
Autokonfiantza eta autoestimua ikaskuntza-prozesuaren zati gisa.*

2023ko uztailaren 31, astelehena

Lehen mailatik hirugarren mailara
C. Musika-testuinguruak eta -kulturak
Mendebaldeko musikaren eta dantzaren historia: aldiak, ezaugarriak, generoak, ahotsak, musika-tresnak eta taldekatzeak.*
Euskal Herriko eta beste toki batzuetako musika- eta dantza-tradizioak, kultura- eta genero-aniztasuna. Taldekatze nagusiak: ezaugarriak eta funtzioak.*
Euskal kulturako eta beste kultura batzuetako musika genero herrikoj, hiritar eta garaikideak.*
Soinua eta musika ikus-entzunezko baliabideetan eta teknologia digitaletan.
Musika- eta dantza-adierazpen desberdinen balorazio kritikoa.*
Genero-joerarik gabeko askotariko musika- eta dantza-adierazpenekiko irekitasuna, interesa eta jarrera inklusiboa.*

Laugarren maila
A. Musika entzutea eta hautematea
Euskal Herriko eta beste leku batzuetako sortzaileek ekoiztutako egungo musika- eta dantza-proposamenak : haien ezaugarri garrantzitsuenen entzumena eta iruzkina.*
Tokiko, eskualdeko, nazioko eta beste toki batzuetako konpositoreak, artistak eta taldeak: zuzeneko eta erregistratutako ekitaldi eta adierazpen artistiko-musikalen eta eszenografikoen azterketa.*
Kutsadura akustikoaren eta musika bereizi gabea kontsumitzearen aurrean jarrera kritikoa izatea. Ingurumena hobetzeko proposamenak diseinatzea.*
Musika-arloari lotutako hiztegi espezifikoa. Ezagutza eta erabilera.
Musika- eta dantza-harrera: balorazio estetikorako irizpideak.*
Historian zehar musikaren eta dantzaren garapenean emakumeek egindako ekarpenaren aitortzea.*
Musika- eta dantza-adierazpen desberdinen gozamina eta balorazioa entzule aktibo gisa eta errespetuzko jarrera izatea.*
Sentimenduen eta emozioen adierazpena eta kudeaketa.*
B. Interpretazioa, inprobisazioa eta sorkuntza eszenikoa.
Egungo musika mota desberdinetako ahots-, musika-tresna- edo gorputz-errepertorioa, banakakoa eta/edo taldekoa.
Errespetuz eta modu inklusiboan interpretatzeko eta inprobisatzeko oinarriko teknikak: ahots-, instrumentu- eta gorputz-teknikak, ikasteko eta emozioak kontrolatzeko teknikak.*
Proiektu baten planifikazioa, materialen hautaketa eta elkarlanean gauzatzea, iraunkortasunaren irizpideen arabera.*
Musika, dantza, eszenografia eta ikus-entzunezko produktuak sortzeko elementuak eta baliabideak.
Partituren eta aplikazio informatikoen editoreak. Musika-ohiturak, -kontsumoa eta -zaletasuna.*
Musika-jardueretan portaera eta parte hartzeko arauak.
Ikasgelan eta gizartean dagoen aniztasunarekiko jarrera inklusiboa eta errespetuzkoa.*
Trebetasun interpersonalki eta sozialak: bere buruarenganako konfiantza, malgutasuna, asertibitatea, empatia eta estrategiak zailtasunak eta arazoak kudeatzeko *
Sormen-proiektuak garatzean besteen ideia eta sentimenduekiko errespetua eta sentsibilitatea.*
Erantzukizunak hartu eta talde-lana optimizatzeko parte-hartze aktiboa eta bidezkoa.*
C. Testuinguru eta kultura musikalki, komunikabideak eta teknologiak
Gure inguruko eta beste testuinguru batzuetako herri-musikak eta hiri-musikak, eta horiek denboran izan duten eboluzioa. Bakarlari eta musika-talde nagusiak.*
Soinua eta musika ikus-entzunezko baliabideetan eta teknologia digitaletan. Beste arte eta hizkuntza batzuen zerbitzura dagoen musika.*
Soinua editatzeko, grabatzeko eta erreproduzitzeko tresnak hainbat testuingurutan. Hodeian biltegitatu. Jabetza intelektualeko lizentziak eta egiletza-eskubideak. Netiketa.*
Eztabaidarako eta argumentazio kritikorako teknikak.*